



KULTUR, KIROL ETA JENDARTE ENTITATEEI

DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA 2016 OINARRIAK

1. Xedea eta helburua.

Kultur, Kirol eta jendarte entitateei diru laguntzak lehiaketa bidez emateko araubidea ezartzea da deialdi honen xedea. Helburua, Etxarri Aranatzan parte hartzea bultzatu, bizi- kalitatea hobetu, eta heziketa, arte, kultura, kirola eta jendarte arloko jardueren bidez jakintza eta kultur garapena suspertuko dituzten ekintzak eta jarduerak sustatu eta laguntzea da, modu honetan udalaren kultur eta kirol ekintza osatuz.

Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira hitzarmenen bidez zehaztutako diru laguntza zuzenak.

Lagundutako jarduera finantzatzeko nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko erakunde diren administrazio edo entitate publiko edo pribatutik lortutako diru laguntzekin osagarria izango da honako diru laguntza hau.

2. Finantziazioa.

2.1. Diru-laguntza hauek **2016.urteko aurrekontuan horretarako egokitutako** kontu-sailaren kargura finantzatuko dira. Laguntzaren zenbatekoa, edonola ere, udal aurrekontuetan xede horretarako ezarritako zenbatekoak baldintzatuko du.

2.2. Laguntzaren zenbatekoa proiektu kopuruaren, haien ezaugarrien eta aurrekontuaren arabera izanen da.

2.3. Diru-laguntza horiek elkarreendako laguntza moduan ulertu behar dira, betiere jardueren egitaraua itxita izanik eta dagokien finantziazio plana oinarri dutelarik.

3.–Entitate onuradunek bete beharreko baldintzak.

Deialdi honetan ezarritako laguntzak jaso ahalko dituzte baldintza hauek biltzen dituzten kultur, kirol eta jendarte ekintzen eremuan lan egiten duten elkarteek:

3.1. Egoitza soziala Etxarri Aranatzan edukitzea eta jarduera udalerrin horretan garatzea gehienbat. Salbuespenez, elkarte edo entitateak baldintza hori bete beharretik salbuetsiko dira, baldin eta behar den batzordeak argi eta nabarmen ikusten badu hezkuntza, kirola, kultura edo ongintzako jarduerak garatzen dituztela edota Etxarri Aranazko herriarendako interes orokorrekoak direla.

3.2. Jarduerak **2015eko urriaren 16tik 2016eko urriaren 15era gauzatuko dira** eta herritar guztiei irekiak egon behar dira, esan nahi baita, ez dela bereizkeriarik eginen sexu, arraza, erlijio eta/edo ideologia kontuengatik.

3.3. Irabazteko asmorik gabe eratuak izatea. Alde horretatik irabazi asmorik gabeko entitatetzat jotzen dira elkartearen xedearekin bat egiten duten jarduerak garatzen dituzten entitateak, onurak haien sortzetiko helburuetarako bideratzen badituzte.

3.4. Haien helburu sozialak harreman zuzena izatea diru-laguntzaren xedearekin.



3.5. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea diru-laguntza eskatzen duten egunean.

3.6. Aurkezten den proiektua bideragarria izanen da ekonomikoki. Aurrekontu orekatua izanen du, hau da, gastuen eta diru-sarreraren zenbatekoak baliokideak izanen dira .

3.7. Entitateek ez dute inola ere Etxarri Aranazko Udalaren diru-laguntzarik jasoko, beren xedeek, harrera sistemak, funtzionamenduak, ibilbideak edo jarduketak emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasun printzipioari kontra egiten badiote.

3.8. Orobat, inork ez du diru-laguntzarik jasoko, baldin eta administrazio ebazpen edo epai judicial irmoen bidez soldata-bereizkeriagatik, jazarpen moralagatik edo sexu arrazoiek ekarritako edozein tratu ezberdintasunagatik zehatuak edo kondenatuak izan badira, edo urratzen badituzte Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legean edo Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipio eta betebeharrak.

4. Diruz laguntzekoak diren arloak eta jarduerak bete beharreko baldintzak.

4.1. Diru laguntzek arlo hauetako programak izanen dituzte xede:

- a) Heziketa jarduerak, haien helburua biztanleriaren edozein sektoreren arautu gabeko hezkuntza bada.
- b) Arte eta kultur arloko jarduerak: antzerkia, musika, dantza, zinema, bideoa, literatura, arte plastikoak, folklorea eta antzekoak.
- c) Jendarte eta kultur arloko jarduerak, haien helburua herritarren sustapena bada.
- d) Herriko arte eta kultur ondarearen babespenaren aldeko jarduerak.
- e) Kirol jarduerak.

4.2. Jarduerak, diru laguntza jaso ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Herritar guztiengana zabalik egotea, hau da, bazterkeriarik ez eragitea sexua, arraza, hizkuntza, ideologia, baldintza sozioekonomikoak, ea. direla eta.
- b) Herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen librea eta garapen pertsonala sustatzea.
- c) Adierazpenaren, sormenaren, partaidetzaren, zentzu kritikoaren eta erantzukizunaren garapena bultzatzea.
- d) Jarduera eta programen publizitatean euskararen erabilera bermatu beharko da.
- e) Antolatzaileak agerpen publiko guztietan euskara erabiliko dela bermatzea, ahoz nola idatziz.
- g) Antolatutako jarduera zuzendutako herritarren beharrei erantzutea.
- h) Hezkuntza, kirola, jendarte edota kulturaren ikuspegitik interesgarriak izatea.
- i) Bertako kultura bultzatzea.
- j) Udalaren beste laguntza-lerro batean sarturik ez egotea.



k) Urteko programazio baten osagarri izatea.

5. Aurkezpen epea eta lekua.

Eskaerak Udalaren erregistroan aurkeztuko dira. **Eskaerak aurkezteko epea 2015eko abenduaren 31ean** bukatuko da, eguerdiko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira.

6. Dokumentazioa.

Laguntzen eskaerak, oinarri hauetako I. eranskinean jasotako ereduari jarraituz, Udaleko erregistroan aurkeztuko dira, dokumentazio honekin batera:

- a) Entitatearen estatutuen fotokopia edo tramitean dagoenaren dokumenturen bat. (Aurreko urteetako deialdietan aurkeztuak izan badira ez da beharrezkoa izango).
- b) Entitatearen IFZren txartelaren fotokopia. (Aurreko urteetako deialdietan aurkeztua izan bada ez da beharrezkoa izango).
- c) Zerga-betebeharrak eta gizarte segurantzako ordainketak eguneratuak dituela ziurtatzen duen egiaztagiria. Entitate eskatzaileak, indarrean den legediari jarraituz, obligaziozko harremanik baldin badu Gizarte Segurantzarekin, harekiko betebeharrak eguneratuak dituela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, Gizarte Segurantzaren diruzaintza orokorrak luzatua. Elkarrekin duen zerga-betebehar bakarra Etxarri Aranazko Udalarekikoa bada, eskabidean berariazko aitortpena egiten du eta Udalak berak emanen du aipatutako ziurtagiria, ofizioz.
- d) Eskatzaileak sinatutako zinpeko aitortpena, entitatea administrazio edo zigor bidean zehatua ez dagoela ziurtatzen duena diru-laguntzak edo laguntzak lortzeko aukera galdua, eta orobat, horretarako ezgaitzen duen inolako legezko debekurik ez duela, sexu bereizkeriagatik izan daitezkeenak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoari jarraituz. (I.Eranskinean txertatua)
- e) Jardueren programa eta horien aurrekontu zehaztua. Diruz lagundu daitezkeen gastuen arabera, laguntza zein jarduera eta/edo emanalditako eskatu den, bada aurkeztutako proiektuak jarduera horien zerrenda zehatza jasoko du eta, orobat, bertan adieraziko ditu aurreikusitako egutegia, emankizunaren tokia, eguna eta ordutegia, bai eta deialdi honetako 9.artikuluaren ezarritako balorazio irizpideak betetzen direlako erreferentziak ere. II.Eranskina.
- f) Finantziario plana, proposatutako egitaraua gauzatzeko, aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak zehaztuta (eskabidearen xede diren jarduera horietarako zein entitate publiko edo pribatari eskatu zaion laguntza edo zeinek eman duen laguntza adieraziko da). II.Eranskina
- g) Eskatzaileak sinatutako zinpeko aitortpena, jarduera berdinerako diru laguntzarik eskatu edo jaso ez izana ziurtatzen duena, baieztatu kasuan zein erakunderi eskatu zaion eta zenbatekoa zehazturik. (I.Eranskinean txertatua)
- h) Eskabidearen baloraziorako aurkeztu nahi den dokumentazio osagarri oro.



a) b) eta c) puntuetan eskatutako dokumentazioa diru laguntza jaso aurretik dokumentuak aurkeztu beharko dira.

7. Dokumentazioaren berrikuspena eta akatsen zuzenketa.

Kultura arloko udal zerbitzuak eskabidea eta oinarri hauetan eskatutako dokumentazioa aztertuta akatsik atzematen badu edo dokumentazioa falta bada, hala jakinaraziko zaio eskatzaileari eta hamar egun balioduneko epea emanen zaio, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, okerrak zuzen ditzan. Epea iragan eta horrela egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da, aitzinetik ebazpena emanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan xedatuarekin bat.

8. Diru-laguntzak ematea, haien zenbatekoa eta muga.

Diru-laguntzak lehiaketaren prozedura erabiliz emanen dira. Horretarako, diru-laguntzak emanen dira diruz lagundu daitekeen alor bakoitzean aurkeztutako eskabideak alderatuz, haien artean lehentasunak ezartzeko, betiere 9. artikuluan ezarritako hautapen eta balorazio irizpideei jarraituz.

Emandako diru-laguntzen gehienezko zenbatekoak ez du gaindituko egindako gastuak ken lortutako diru-sarreraren zenbatekoa.

Udalak jarduera batzuen egiazko aurrekontuaren %100eraino ordaintzen ahalko du, baldin eta udalerrirako interes berezia dutela iruditzen bazaio eta batzordeak hala erabakitzen badu.

Nolanahi ere, aurrekontuan zer diru dagoen eta zenbat eskatzaile dauden, beharrezkoa bada onuradun bakoitzari dagokion ekarpena proportzioan murriztuko da.

Onartuko diren diru laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu elkarte bakoitzari onartutako aurrekontuaren gastua.

Aldi bereraren, banaketa egin ondoren dirua soberan geratzen bada, defizita duten jarduera edo programaen artean banatu ahalko da, aurrekontuaren arabera eta proportzionalki.

9. Balorazioa

9.1. Ondorengo pertsonen osaturiko batzordea izango da prozedura bideratuko duena: batzordearen lehendakaria izango den alkatea, kultura eta kirol zinegotzia/k, kultur teknikaria, kontuhartzailea eta idazkaria. Batzordeak, eskaerak aztertu ostean, diru laguntzak banatzeko osatutako proposamena Etxarri Aranazko Udaleko alkateari luzatuko dio. Diru laguntzen banaketa proposamena egiteko batzordeak 30 eguneko epea izango du, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita. Batzordeak arlo horretan adituak diren pertsona fisikoen edo entitateen aholkua eska dezake. Orobat, aurkeztutako informazioaren argibideak eskatu ahalko ditu, bai eta bere aurrean agertzea ere, erabakitzeko oinarri hobea izateko.

9.2. Diru laguntzak emateko batez ere baloratuko da:

a) Jarduerak hezkuntza, kirol, jendarte eta/edo kulturaren ikuspegitik herrian izan dezakeen interes eta



oihartzuna. Zenbat etxarriar dauden kontutan hartuko da.(%30)

b) Honako hauen sustapena eta bulkada: euskararen normalizazioa; emakume eta gizonezkoen arteko harreman bidezkoak, kulturen elkar ezagutza eta elkarrekiko erlazioa; ingurumeneko iraunkortasuna, eta desgaitasuna duten eta egoera ahulean dauden pertsonen inklusioa eta haien alderako sentsibilizazioa. (%30)

c) Jardueraren egun kopurua. Jarduerak iraunkortasuna izatea. (%10)

d) Bertako kulturaren sustapena eta bulkada. (%10)

e) Sormena eta jardueren izaera berrizalea.(%10)

f) Euskararen erabilera. (%10)

10.Ebazpena

10.1. Eskaren ebazpena Etxarri Aranazko Udaleko alkateak egingen du, batzordeak egindako proposamena aintzat harturik. Ebazpena erabaki eta jakinarazteko epeak ez du 3 hilabeteko epea gaitutuko, deialdia argitaratu den egunetik hasita. Epe hori pasatzen bada inolako ebazpenik gabe, eskatzaileak eskabidea ezeztatua bezala ulertu ahalko du.

10.2.-Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren kontra, hautara, errekurtsio hauetakoren bat para daiteke:

10.2.1.-Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroan administrazioarekiko auzietan eskumena duen organoari zuzendua, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

10.2.2.-Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik hasita.

10.2.3.-Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

10.3. Eskara luzatu duen pertsonari deialdiaren ebazpenaren berri emango zaio, baita lagunduko diren jardueren berri ere. Onespina jendaurrean jarriko da, udaletxeko iragarki oholean.

10.4. Diru laguntzek elkarrekin eskatzailearen jarduerara edo programen kostuak sorrarazitako defizitaren atal bat arintzeko helburua dutela ulertuko da.

10.5. Diru laguntzaren zenbatekoa Etxarri Aranazko Udalaren aurrekontuetan xede horrekin berarekin dagoen diru kopuruak baldintzatuko du beti ere.

11.Onuradunen betebeharrak.

11.1. Elkarrekin onuradunek betebeharrak izanen dituzte:

a) Proiektuaren garapenean gertatzen den eta haren aldaketa ekar dezakeen edozein gora-beheraren berri emanen zaio Udaleko Kultura zerbitzuari, gertatzen den momentuan. Proiektuan edozein aldaketa egiteko Kultura zerbitzuaren adostasuna beharko da jarudera burutu baino lehen. ,

b) Kultur Zerbitzuko teknikarien ebaluazio lanak onartu eta erraztea.



c) Diruz lagundutako jarduera eta programen publizitatean Etxarri Aranazko Udalaren laguntza agertu behar da. Etxarri Aranazko Udalaren kultur zerbitzuaren babesak espresuki eta argi adieraziko da diru-laguntza emateko ebazpena jasotzen den egunetik hasita, honako euskarri hauetan: katalogo aleetan, eskuko egitarauetan, karteletan eta diruz lagunduko den jarduera dela eta prestatzen den gainerako material grafikoan. Euskareraren erabilera bermatu beharko da eta ez da irudien eta hizkuntzaren erabilera sexistarik egingen.

d) Diru-laguntza hori erabiliko da soil-soilik deialdi honetan diruz lagundutako jardueren egitaraua gauzatzeko.

e) Diruz lagundutako programa gauzatu dela eta zer gastu izan den Udaleko Kultura zerbitzuan frogatu beharko da.

f) Lagundutako jarduera finantzatzeko lortutako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea Udaleko Kultura zerbitzuari. Jakin bezain laster emanen da haien berri eta, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

11.2. Ekitaldi ekonomiko zehatz baten kontura diru-laguntza bat jasotzeak ez dakar inolako eskubiderik, hurrengo urteetan diru-laguntzak jasotzeko.

11.3.-Diru-laguntza emanda, onartutzat joko da, espresuki uko egiten ez zaio. Bertzenaz, ulertuko da onartu dela emandako zenbatekoa eta eskatzaileak konpromisoa hartuko du proiektatutako jarduera gauzatzeko.

12. Ordainketa, justifikatzeko modua eta epea.

12.1. Entitate onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte udal erregistroan, **2016ko urriaren 30a baino lehen:**

a) Diruz lagundutako egitarauaren exekuzio memoria, egindako ereduari jarraiki. Bertan jasoko dira gutxienez 9. artikuluan ezarritako balorazio irizpideak betetzeari buruzko erreferentziak eta jarduera iragartzeko kartela.

b) Balantze ekonomikoa, egindako ereduari jarraiki.

c) Egindako gastuaren frogagiriak, jatorrizkoak (edo, horiek ezean, konpultsatutako fotokopiak). Fakturretan honako hau zehaztu beharko da: ordaintzen duen entitatea, gastuaren data, kontzeptua, zenbatekoa eta enpresaren izena (NANA edo IFK), zigilua eta luzatzen duenaren sinadura.

12.2. Diru-laguntzari dagokionez, frogatutako gastutzat joko dira soilik lege ezarritako baldintza guztiak biltzen dituzten faktura edo dokumentuak. Gainerakoak deuseztatu egingen dira.

12.3. Esleitutako diru laguntza osoa justifikatu beharko da. Justifikatutako gastua esleitutako diru laguntza baino txikagoa balitz diru laguntza justifikatutakoaren araberakoa izango da.

12.4. Diru laguntzaren ordainketa justifikazioa aurkeztu eta gero egingen da. Ordainketa egiteko epea



hilabete batekoa izango da justifikazioa jasotzen den egunetik hasita.

12.5. Diru laguntzaren ordainketa egin ahal izateko dokumentazioa jaso ezean diru laguntzari uko egiten zaiola ulertuko da. Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta akatsik antzematen badu edo dokumentazioa falta bada, eskatzaileari eta hamar egun balioduneko epea emanen zaio okerrak zuzen ditzan. Epea iragan eta horrela egiten ez badu, eskaerari edo dirulaguntza zati bati uko egin diola ulertuko da.

13. Ez betetzea.

13.1. Deialdi honetako oinarrietan ezarritakoa ez betetzeak, datuak faltsutzeak, edo, diru laguntza zein xedetarako eman zen, horien funtsezko aldaketak, diru laguntzaren galera ekarriko du, eta jaso diren zenbatekoak itzuli beharra ere bai. Halaber, xede berarekin edo beretsuarekin gero beste eskaririk egiten bada, ez da onartuko.

13.2. Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat ez betetzeak diru-laguntza deuseztea ekarriko du.

14. Arautegi erregulatzaileria

Deialdi hau arautzen dute deialdi honetan bildutako oinarriek, Etxarri Aranazko Udalaren diru-laguntzak emateko ordenantzak eta bertan aurreikusi gabekoetan azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta gainontzeko dagozkion legedian ezarritakoak.

15. Datuen babesa.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetz, jakinazten dizugu deialdia hau dela eta biltzen diren datu pertsonalak Etxarri Aranazko Udalaren titulartasuneko fitxategi informatizatu batean sartu ahalko direla (Kale Nagusia 10, 31.820 Etxarri Aranatz). Era berean, jakinarazten dizugu baduzula eskubidea datu horiek ikusi, zuzendu, ezabatu eta haien kontra agertzeko, Udalaren Erregistro Orokorrean joz horretarako (Kale Nagusia 10, 31.820 Etxarri Aranatz).

16.-Helegiteak

Deialdi horrek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren kontra, hautara, errekurtsio hauetakoren bat para daiteke:

- 1.-Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroan administrazioarekiko auzietan eskumena duen organoari zuzendua, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- 2.-Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik hasita.
- 3.-Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Etxarri Aranazen, 2015eko

Alkatea



ETXARRI ARANAZKO UDALA

Eneka Maiz Ulaiar